

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urtarrilak 24



Mizpirualde egoitzan

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa 2/g.

Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

MEDINA



Zatoz zeramika erakusketa berria bisitatzeraz!



Tailerra eta
erakustokia:
S. Lorenzo, 4
Tl.: 76 28 07



i t u r k i n t z a



g a s a • b e r o g a i l u a

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

ALTZARIAK DEKORAZIOA

ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91

BERRIGARA

BERRIGARALDE JAUREGIA

401570 Bergara

Tel: 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

BERRIGARALDE JAUREGIA

Zuzendaria:

Eduardo Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Eduardo Elkoroberezibar

Kontaketa:

Eduardo Iturbe

Publizitatea:

Eduardo Romero

Argipidetzak:

Eduardo Elortza

Erretuen zuzenketak:

Eduardo Plazaola

Eduardo Laskurain

Eduardo Labaien

Erredakzio kontseilua:

Eduardo Elortza

Eduardo Angel Elkoroberezibar

Eduardo Labaien

Kontseilariak:

Eduardo Rodriguez

Eduardo Ortega & Jon Alvarez

Eduardo Ugalde

Eduardo Azkarate

Kontaketa:

Eduardo Angorri taldea

Erredakzioa:

Eduardo ale.

Erredakzioa:

Eduardo Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Erredakzioa:

Eduardo 91

Erredakzioa:

Eduardo-6599

BERRIGARAK ez du bere gain

erabiltzen aldizkarian adierazitako

erabiltzen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ESTEPAN PLAZOLA

Euskara dinamizatzailea

- Udalak Literatur
Lehiaketaren XII. edi-
zioa deitu du...

- Bai, Bergaran bertan
jaio, bizi edo lan egiten
duen edonork parte hartu
ahal izango du eta egile-
ek edozein genero lantze-
zako aukera edukiko du-
te: ipuina, poesia, konta-
kizun laburra..., etab. La-
nak argitaragabeak eta
euskaraz idatziak izan
beharko dute eta adina-
ren arabera bost talde be-
reiztuko dira. 13 urtetik
gorakoek lanak makinaz
idatzita aurkeztu beharko
dituzte eta gaztetxoei,
berriz, eskuz idazteko
aukera emango zaie. La-
naren luzera ere desber-
dina da adinaren arabera
eta lanak entregatzeko
epea apirilaren 11n buka-
tuko da.

- Zenbat lan aurkez-



tu ziren iaz? Nolako sa-
riak izango dira?

- Iazko edizioan 280
lan jaso ziren guztira eta
espero dugu aurten ere,
gutxienez, antzerako
erantzuna izatea. Katego-
ria bakoitzean sari inter-
resgarriak banatuko dira
eta, horrez gain, lehiake-
tara aurkeztu diren lan
onenak bilduko dituen li-
buruxka argitaratuko du
Udalak.

**“Literatur lehiaketan iazko edizioaren
antzeko erantzuna jasotzea espero dugu”**

I T U R R I O N E T I K

Aranzadi Ikastolaren XXV. urteurreneko ospakizunak apirilean

Aranzadi Ikastola bere XXV. urteurreneko
ospakizun ekitaldiak prestatzen ari da. Gogoratuko
duzuenek, Aranzadi Ikastola sortu zeneko urrezko
eztaiak joan zen ekainean bete ziren eta hori
ospatzeko Ikastolako arduradunek hainbat ekitaldi
antolatuko dituzte datozen hilabateetan. Besteak
beste, apirilaren 26an Benito Lertxundiren jaialdia
izango da Frontoian eta apirilaren 19an edo 26an
Kokox, Kakax eta Kirriki pailazoaren emanaldia
antolatu nahi da. Era berean, herriko taldeekin
jaialdi bat antolatzeko aukera aztertzen ari da eta
Ikastolari buruzko liburua argitaratuko da.

E S A N
D U T E

“Ikurriñaren aldeko
borrokak garrantzi
izugarria zuen.
Zergatik? Herriaren
nortasunaren ikurra
zelako batetik, eta
lurraldetasunaren
adierazpena zelako
bestetik. Herriaren
borondatea zen, eta
lortu genuen. Gurea
da orain. Orain
borroka ez da
Ikurriña bera,
Ikurriña edukiz
betetzea baizik”.

**JOSE LUIS
ELKORO**
Bergarako
alkate ohia
EGUNKARIA

“San Martinen estampa
ikuskizunean herriko
talde gehienek
hartuko dute parte
eta oso espektakulu
ikusgarria izango dela
espero dugu.
Bestalde, zuzenean
parte hartuko duten
taldeez gain, beste
jende mordo bat
dago horren atzetik
(jostunak, etab.) eta
guztiei gure eskerrak
adierazi nahi
dizkiegu, lan
izugarria egin dute
eta. Ikuskizunean
parte hartuko duten
guztiak bergararrak
izango dira eta hori
ere oso inportantea
da herriarentzat”.

LUIS ABAJO
Kultur Zinegotzia
HERRI IRRATIA



DAYLIGHT PANICO EN EL TUNEL

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



EL PROFESOR CHIFLADO

Domeka: 11:30 (Matinala).



MOLL FLANDERS

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ New York hirian Manhattan eta New Jersey lotzen dituen tunelean izugarriko ataskoak izaten dira ordu puntetan. Egun batean istripu larri bat izango da eta ondorengo ezta hildako ugari ekarriko ditu; airea kez eta gas toxikoz kutsatuko da eta tunelean entzerratuta geratu direnen itxaropen bakarra *Kit Laturaren (Stallone)* aktuazioa izango da. Ez dute irteera errez topatuko...

▼▼ Eddy Murphy aktore ezagunak (*Superdetective en Hollywood*) protagonizatu-tako komedia, matinallean ikusteko aukera. Jerry Lewis aktorearen filme batean oinarrituta, *Sherman (Murphy)* kimika ikerlariaren gorabeherak azaltzen zaizkigu. Pisua galtzeko ahaleginetan, *Shermanek* egoera bitxiak jasan beharko ditu...

▼▼ Pen Denshamek zuzendutako filme honetan Robin Wright (*Forrest Gump*) eta Morgan Freeman (*Seven*) dira protagonista nagusiak. *Moll Flanders (Wright)* XVIII. mendeko Londresen jaio eta txikitatik miseria ezagutuko du. Baina *Moll Flanders* ez dago garai horretako klasen arteko diferentziak onartzeko prest eta gogor borrokatu beharko du.

Deiak

▼ Aranzabal Lagunartea. Dimekan Realak Logroñesen kontra Las Gaunasen jokatu duen partidura joateko izena eman zutenei jakinarazten zaie irteera goizeko 9etan izango dela frontoi aurrean. Aranzabal Lagunarteko kide direnek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 5.000.

▼ Oscar Barrera margolaria-
ren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ Bideo emanaldia Osintxun. Amaia Elosegik eta Esther Muger-
tzak, "Turkiatik Birmaniara bizikletaz" ikus-entzutekoa aurkeztuko dute gaur, ostirala, arratsaldeko 7:30etan Osintxuko Ludotekan.

▼ Erakusketa. Moserrek erabiltako bizikletak Kultur Etxean.

Ogia

▼ Domeka 26: Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ Eguakitza 24: Guallar.
- ▼ Zapatua 25: Estella.
- ▼ Domeka 26: Estella.
- ▼ Astelehena 27: Mozos.
- ▼ Martitzena 28: Camacho.
- ▼ Eguaztena 29: Puy.
- ▼ Eguena 30: Guallar.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

San Pauloak Uberan

San Antoneko eta Parteittiko jaien ondoren

Astebukaera honetan Ubera auzoko jaien txanda izango da. Gaur ostirala arratsaldeko zortzi terdietan makailo afaria izango da eta ondoren trikitalariez alaitutako gau giroa iragarri da. Joseba Arbulu jai batzordeko kidea dugu eta bere hitzetan, "iraila aldera ekin genion jaiak antolatzeari; auzoko buzoietan lagatako paper batzuen bitartez jendea konbokatu genuen eta ondoren 7 lagunez osatutako batzordea osatu genuen, 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak aritu gara antolatzailer lanean".

Uberako jaiak milioi bat pezeta inguruko aurrekontua daukate; "Bergarako Udalak 135.000 pezeta eman dizkigu eta joan zen urtetik sobran geneukan diruarekin moldatu gara. Dirua gebitzen joan da eta aurtengo jaietan inbertitu dugu dirua. Aurreko urteetan dendaz denda ibili behar izan dugu, publizitatearen truke 1.000 duro eskatuz baina aurten ez dugu horrelakorik egin. Barbada apirilean Uberan izango den Euskadiko Openeko mendi bizikleta-ko probarako eskatu be-



Gozategi taldeak zapatuko erromeria alaituko du.

harko dugu dirua" adierazi digu Arbuluk. Azken bi urteetan jokaturako auto-krossa ezin izan da aurten antolatu, horretarako toki aproposik aurkitu ez delako.

Zapatuan Gozategi

Aurtengo jaietako ekitaldirik azpimarragarriena Gozategi anaiak taldeak zapatuan eskeiniko duen kontzertua da. Aurretik

goizeko 11etan Meza izango da eta 12:30etan haur jolasak antolatuko dira. Gaueko kontzerturako sarrera debaldekoa izango da.

Arbuluk gogoratzen duen moduan, "leben izugarrizko ambientea sortzen zen Egan taldearen dantzaldiekin eta ea aurten ere giro hori berreskuratzen dugun... Bizkaia aldetik nik uste jende gehiago etortzen dela: Elgeta, Elorrio edo Durango-ko jendea izugarri gustatzen zaio musika mota hori eta jende dexente etortzea espero dugu".

Mezetara joaten direnentzat salda eta txorizoa

Domekan, San Paulo Txiki egunean, goizeko 11etan meza izango da eta ondoren, programan azpimarratzen den moduan "saldo eta txorizoa mezetan izaten diren guztientzat". Arbuluk argitzen digunez, "leben astebarruan tokatzean ez zen jende gehiegirik burbiltzen baina domekan jende asko biltzeko aukeran dagoenez, erdi katxondeoan jarri dugu txorizoa eta saldarena". Adi beraz...

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.

Tfnoa: 76 27 93

Irrifarrari mugarik ez

Etxean otso, kalean uso edo irrifarrak mugak dituen etxean bertan.

Azkeneko zortzi urteetan Oihulari Klown taldea Bergarako herrian kokaturik aurkitzen da. Oihulari taldea osatzen duten hamabi partaideak, Bergarako giro sozial eta artistikoko murgilduta egon dira: Pol-Pol tabernan izaten diren jaialdiak hilean behin, tailerrak, klownklusioak, ipuin saioak.

Azkeneko zortzi urte hauetan lokal baten beharrez zuzendu gatazkiek udaletxeakoei, erantzuna beti ezezkoa izan delarik. Oihulari taldeak hainbat proiektu aurkeztu ditu, aitzakia beti diru falta eta lokalen eskasia delarik.

Normalean udaletxean egin izan dituguten galdera: "Baina zuek Bergarako al zarete?". Egia esan Bergaran umezurtzak izan gara eta gara, inongo laguntzarik eta detainerik ez baitugu jaso. Baina guri zalantzan jarri nahi dituzten hori... tira ba... "jendea nongoa da?". Jaio den herrikoa edo bizi den lekukoa? edo enpardonatuta dagoen lekukoa? edo ez gara inoiz inongoak izango.

Aitzaki nagusienetakoa euskararena dela uste dugu. Gaur egun Oihularin euskaldun zaharrak, euskaldun berriak eta erdaldunak dauzkagu, hau da, denetarik. Taldeak arlo artistikoari ematen dio garrantzia bereziki, baina azpimarratu nahiko genuke taldeak euskararen gaiarekiko duen sentiberatasuna eta euskaldun berri diren taldekideek, ikuskizunak euskaraz plazaratzeko nahian egin duten esfortzua eta lana. Honen lekuko, aurkezten ditugun ikuskizun gehienak bi hizkuntzatan eskaintzen ditugula litzateke. Hain zuzen ere, Bergarako udaletxeak oraindik ere programatu ez dituenak.

Azkenik Gabonetan jasan dugun atseka-bea adierazi nahiko genuke. Dakizuenez, Oihulari kooperazio baten barne, El Salvadorrera abiatu berria da, urtarrilaren 13an. Hau dela eta, hiriburu guztietako udaletxeekin harremanetan jarri ginen, proiektuari aurre egin ahal izateko, programaturako jaialdietarako edo proiektuarendako berarendako laguntza eskatuz (azpiegitura, ekonomikoa...). Bertakoak izanik Bergaran ere jaialdia egin nahi genuen eta Orfeoik erabiltzen duen lokala utzi ziguten. Egia esanda, baldintza penagarrietan, dena zikina baitzegoen. Bestetik udaletxeko inor ez zen etorri laguntza eskaintzera. Programaturiko hiru antzezlanetatik bi bertan behera utzi genituen jenderik ez zelako azaldu.

Elkartasun frogatik bikoitza genuen gure aurrean, bata El Salvadorrekiko eta bestea gurekiko, Oihularirekiko alegia. Behin eta berriz abandonaturik aurkitu gara. Eskoletan, ikastoletan, irraturan, prentsan... izan ginen. Bergara guztian zehar kartelak jarri genituen gure proiektuaren berri emanez. Baina jendea ez zen enteratu edo ez omen zen enteratu.

Ez dago ezbehar haundiagorik ukatuak izatea baino. Noiz arte?

Anaje, zure hutsunea nabaritzen dugu!!! Bihotzez eskertzen diegu: Pol-Poleko lagun leialei (Txapa irratikoak eta hainbat lagun pertsonal). Juanan Migurari (DVko artikulo aberatsa eta hunkigarri hura argitaratzeagatik). Bergarako kontsumitzaileen elkarteari eta hainbat despistaturi.

Hauek ezik, gure irrifarre tristeena elkartasun eza adierazi duten bergarar horiei.

Irrifarrari inongo mugarik ez!!

OIHULARI KLOWN

Bailarako beharrei erantzun

Orain dela hamabost egun aldizkari honetan "marra zuzenaren kofradia" izenburupean idatzi "xelebre" bat argitaratu genuen. Egia esan Eibar-Gasteiz autopistaren gaia, hori baino askoz serioagoa da baina kontutan hartuta administrazioaren eta politikarien jarrera ez-erria (informazioa publikoki ez zabaltzea, autopistaren egitasmoari behin eta berriz markaren garrantziei jarraituz izena aldatzea, N-100 IGP prozesua manipulatzeko, A-8 autopistaren peajea luzatu nahia...) inuzente egunean idatzi hori eskaintzea bururatu zitzaigun.

Orain honetan, eta gure seriotasunaren adibide bezala, antolatutako ditugun ekitaldien berri eman nahi dugu. Bi mahai-inguru planteatu ditugu: Urtarrilaren 29an arratsaldeko 7:30etan, Kultur Etxean, Debasa eta Leintz-Gatzaga/Landako biztanleen ordezkariak hartuko dute parte. Beraz, batetik autopista eta bestetik hurbekuntza sakonak defenditzen dituztenen arteko eztabaida. Bestalde, urtarrilaren 30ean 7:30etan, Kultur Etxean, EAJ-PNV, EA eta PSE gonbidatu ditugu herri mailako mahai-inguru honetarako. Zein da gure herriak, eskualdeak, bailarak behar duen azpiegitura mota?

Bestalde, otsailaren 14tik 23ra bitartean Kultur Etxeko erakusgela aretoan autopistaren gaiari lotutako panelak eta bideoa izango dute ikusgai. Honekin batera, Bergara udalaren zatian autopistaren trazaketa ezagutu ahal izateko panfleto ikusgarri bat aterako dugu herriko guztiek honen berri eduki dezaten eta ikastetxe desberdinetan hitzaldiak emango ditugu. Eibar-Gasteiz autopistarak ez!!

LEINTZ-GATZAGA/LANDA PROPOSAMENAREN ALDEKO TALDEA

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Pol-Polekin eskiatzera

Pol-Polek astebukaera Formigalen pasatzeko irteerak antolatu ditu otsail, martxo eta apirilera. Otsailaren 1 eta 2an eta 15 eta 26ean; martxoaren 1 eta 2an eta 15 eta 16ean eta apirilaren 5 eta 6an eta 19 eta 20an antolatuko dira irteerok. Aukeratzten den apartamentuaren arabera prezio ezberdinak izango dira: Midi apartamentua aukeratzuz gero, 13.000 pta. ordaindu beharko dira eta Blanchard apartamentua aukeratzenean bada, berriz, 12.500 pta. Prezioaren barruan, pentsio erdiko egonaldia, igandeko bazkaria, 2 egunerako erremonteak, aseguru eta materialaren alokairua sartzen dira. Irteerak larunbatetan goizeko 5etan.

Gune Historikoaren Erreabilitaziorako Plan Berezia aztertzen ari da Udala

Iñaki Aspiazu eta Jabier Yeregi arkitektoek landu duten Bergarako Gune Historikoaren Erreabilitaziorako Plan Berezia aztertu da martitzenean Udaleko Hirigintza batzordean. Bergarako Arau Subsidiarioak onartu eta gero, herriko kasko historikoan etorkizunean egin daitezkeen birgaitze lanetan erabiliko diren irizpideak zehazten dira txostenean. Honela, fatxadak konpontzerako orduan kontutan izan beharrekoak, hau da, zer egin daitekeen eta zer ez, eta zaharkituak dauden etxeak bota daitezkeen edo ez zehazten dira besteak beste. Herriko alde zaharreko eraikuntza guztiak, etxez etxe eta solairuz solairu aztertu dira Plan Berezian.



Udaletxe atzealdea, gaur egun adokina jarrita dagoen tokietako bat.

Etorkizunean, alde historikoan adokina

Plan Berezian jasotzen denaren arabera, etorkizunera begira helburua alde zaharrean adokina berreskuratzea da. Gaur egun zati batzuetan adokina jarrita dago, Komenio kalean eta Udaletxe atzealdean esate baterako. Hala ere, Udalak epe laburrera ez du aurreikusiten kasko historiko guz-

tian adokina jartzea, oso garestiegia izango bailitzateke. Epe laburrera egin beharreko lanen artean, Irala kalera ematen duen Barrenkaleko atzealdeko gunea oinezkoendako egokitu eta bertan abenida txiki bat egitea aurkitzen da.

Bestalde, Bidekurutzea eta Ibargarai lotuko dituen kalea egokitu eta Justo Garate plaza egitea da Udalak esku artean

duen beste egitasmoetako bat. Hirigintza batzordean dagoeneko Plan Berezia aztertzen hasi dira, baina hurrengo asteetan ere heldu beharko diote gaiari. Ondoren, Udaletxean jarriko da ikusgai eta alegazioak egiteko epea zabalduko da. Ondoren, Plenoan aztertu eta onartu egin beharko da eta Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren oniritziak jaso.

HILDAKOAK

- Basilía Manzidor Mujika**
Urtarrilak 16.
- Marina Iturbe Telleria**
Urtarrilak 18, 83 urte.
- Lucía Manzidor Mujika**
Urtarrilak 22, 81 urte.
- Natalia Urkiola Lazpiur**
Urtarrilak 22, 89 urte.

JAIOTAKOAK

- Naróa Inza Retes**
Urtarrilak 14.
- Ignacio Dulanto Arriola**
Urtarrilak 15.
- Iosu Pueyo Ezkurra**
Urtarrilak 15.

Zure konfidantzako denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Autopistari buruzko mahai-inguruak

Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko taldeak bi mahainguru antolatu ditu datorren asterako. Asteazkenean, hilak 29, arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean, Debasako eta Leintz-Gatzaga/Landako biztanleen ordezkariak izango dira. Alde batetik, autopistaren aldeko direnen argumentuak, eta bestetik, hobekuntza sakonak defenditzen dituztenenak jarriko dira mahaiaren gainean. Hurrengo egunean, ordu eta toki berean, bestalde, EAJ, EA eta HBko ordezkariak, Deba arrorako nahi dituzten azpiegitura motei buruz jardungo dira.

Euskal presoak gose greban

Mikel Askasibar eta Iñaki Arenaza preso bergararrek gose grebari ekingo diote bihartik, urtarrilak 25, aurrera. Mikel Askasibar Herrerako espetxean dago eta Iñaki Arenaza, berriz, Alcalá Mecon. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko hasiko dira gose greban.

Arrantza baimenak

Ollagorri elkartereko arrantza sailak jakinarazi du datorren astetik aurrera arrantza baimenak eskura daitezkeela bertan, arratsaldeko 7:30etatik 8:30etara. Honako egun hauetan eskura daitezke baimenok: urtarrilaren, 27, 28, 29 eta 30ean; otsailaren 3, 4, 5 eta 6an, eta martxoaren 3, 4, 5 eta 6an. Halaber, eskatzen dute arrantzan egiteko lizentziaren balioa galduta izan eta ziprinidoen zonan arrantzan egiten dutenak izan daitezela baimenak berriztera elkartera joaten diren lehenak.



Gaur egun Aspaceko ikasleek astero egiten dituzte ur jarduerak piszinetan.

Ezgaitasunak dituztenentzako ur jarduerak antolatuko dira

Otsailean hasiko dira eta hiru hilabete iraungo dute

Ezgaitasun psikikoa, fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonen behar bereziei eta hauen funtzional mailari egokitutako ur jarduerak antolatuko ditu Deba Garaiko Mankomunitateak otsailetik aurrera. Igeriketa zerbitzu hauek, ohiko kirol eta jarduera fisikoetan parte hartzeko zailtasunak dituztenei edo hauetan parte hartu ezin duten pertsona ezgaituei zuzenduta daude eta Bergarako Udal Igerilekue-tan egingo dira. Zerbitzuaren antolakuntzan bi azpitalde bereiztu dira: alde batetik, eskolarrei zuzendutako igeriketa egokituaren zerbitzua; bestetik, helduei zuzendutako igeriketa egokituarena.

Ur programa hauek, gutxienez 4-6 partaidetik gorako taldeetan an-

tolatuko dira. Taldeak antolatzerako orduan, ezgaitasun mota, adina eta uretan duten funtzional maila izango dira kontutan. Igeriketa jardueretan igeriketa estiloak, kirol errendimenduak eta funtzionalitate motrizaren hobekuntza landuko dira besteak beste.

Zerbitzuak, otsailean hasi, eta hiru hilabete iraungo du eta asteen minutuko bi saio egingo dira. Taldea osatzen dutenen kopuruaren arabera zehaztuko dira prezioak, baina 2.000-3.000 pezeta hileko balioko du gutxi gora-behera. Talde bakoitzaren ordutegia eta praktikak egunak, taldeak eginak daudenean zehaztuko dira. Igeriketa jarduerak hauetan parte hartu nahi dutenak Udal Kirol Zerbitzura jo behar dute.



KORTA-ZAR

Txokolategia

*Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Igerileku estaliak konpontzeko asmoa azaldu du Udalak


Aurtengo aurrekontuetan zati bat hortara bideratuko da

Bergarako Udala igerileku estaliak konpontzeko asmotan dabil. 25 urte bete zituzten iaz eta zaharkituta geratu dira. Azken aldian asko hitz egin da barruko igerilekuei buruz egunero erabiltzen dituztenentzat modu egokienean ez daudelako.

Arazoari irtenbidea topatu nahian hainbat aukera aztertu dira, kanpoko piszina neguan estaltzeko karpa haundi bat jarri eta barrukoak botatzea, eta piszina estali berriak egitea, besteak beste. Aukera hauek baztertu ei dira, kostu handiegia suposatzen dutelako eta Diputaziotik dirutza horri aurre egiteko dirulaguntzarik aurreikusten ez delako. Bergarako igerilekuentzat Diputazioak 15 milioi pezetako di-

runlaguntza aurreikusi du 2001. urterako, baina gaur egun piszinek dituzten beharrei erantzuteko laguntza txikiegia da eta oso berandu iritsiko da.

Kontuak kontu, barruko igerilekuak konpondu beharra dagoela ez du inork zalantzan jartzen eta hori dela eta, aurtengo eta datorren urteko udal aurrekontuetan konponketarako zati bat sartuko du Udalak. Esan behar da, egin diren azterketen arabera, 60 milioi pezeta inguruko kostua edukiko lukeela barruko igerilekuak konpontzeak. 40 milioi inguru instalazioak berritzeko erabiliko lirateke eta 15 milioi pezeta Eusko Jaurlaritzak eskatzen duen araudia betetzeko egin beharreko berrikuntzetarako.



Zaharkitua geratu diren barruko piszinei irtenbidea topatu nahi die Udalak.

Argazki ikastaroa

Pol-Pol Argazki Taldeak argazki ikastaroa antolatu du otsailerako. Ikastaroa 19:15etatik 21:00ak arte egingo da Zabalotegiko lokalean.

Interesa duenak izena eman dezake Udal Liburutegian.

Kirol sariak 96

1996an nabarmendu diren herriko kirolariak sarituko dira datorren asteartean, hilak 28, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Berrigarak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatu duten sariketan, goi mailako kirolaririk onena, herriko kirol elkarteetan dabilzan kirolaririk onenak eta urteetan herrian kirolaren alde egindako lanagatik nabarmendutako pertsona sarituko dira.

Ia 200 amodiozko gutun

200 karta inguru aurkeztu dira Amodiozko Gutunen V. Berrigara Lehiaketara (iaz 176 izan ziren), horietatik 27 Bergarakoak dira. Arantzazu Loidi, Laura Mintegi, Gerardo Markuleta eta Miel Anjel Elustondo epai mahaikideek nahikoa lan izango dute orain onenak aukeratzeko. Sariak otsailaren 14an, San Balentin egunean, arratsaldeko 7:30etan banatuko dira Zabalotegiko aretoan egingo den ekitaldixoan.

Ostiralean huelga ertainetakoek

Astean zehar Euskal Herriko hainbat tokitan izandako atxiloketen kontra protestatzeko huelga egin zuten joan zen ostiralean ertainetako ikastetxeetako ikasleek. Ondoren, manifestazioa egin zuten herriko kaleetatik zehar. Ertzaintzak manifestazioa gertutik jarraitu bazuen ere, ez zen istilurik gertatu.



AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

400 bergarar imguruk hartuko dute parte San Martinen estanpan

San Martinen heriotzaren 400. urteurrena ospatzeko ikuskizuna otsailaren lehenean estreinatuko da Udal Pilotalekuan

Otsailaren 1ean estreinatuko den San Martinen Estanpa ikuskizunaren aurkezpena egin zen asteazkenean Udaltxean.

San Martin Agirrerren martiriaren 400. urteurrena betetzen da datorren otsailaren 5ean eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira: Udal Pilotalekuan eskainiko den ikuskizunaz gain, Bergarako seilu eta bildumazaleen elkarteak prestatu duen seilu erakusketa berezia, besteak beste. Bestalde, Miguel Angel Elkoroberezibarrek iaz Japonera egindako bidaiaren ondoren idatzi duen liburua, "San Martin: Gurutzebidea eta bigurutzeta (1597-1997)" izenekoa, San Martinen estanpa ikuskizunera sartzarako doan banatuko da. Ekitaldiok Udalak bultzatu ditu eta San Martinen Estanpa ikuskizuneko arduradun nagusiak, Alfredo Gonzalez Chirlaque (musika arduraduna) eta Valen Moñux (eszena arduraduna) dira.

Miguel Gonzalez Bastidaren partitura

Ikuskizuna 1957an estreinatu ziren Euskal estanpetarako Miguel Gonzalez Bastidak idatzitako San Martinen Estanpa ize-



Asteazkenean aurkeztu ziren San Martinen martiriaren 400. urteurrenarako antolatu diren ekitaldiak.

neko partituran oinarrituta dago. Horrez gain, Bergarako ohituretan sustraiturik dagoen musika herrikoitik zati batzuk hartu dira ikuskizuna osatzeko. Musika lan originalak bost estanpa ditu: San Martin bezpera, Prozesioa, Sokamuturra, Minuetoa eta Suzko erroberak eta Ereserkia. Obra eguneratzeko, Danborrada ere sartu da: alde bategatik, Nagusien danborrada, estilo tradizionalagoa duena, eta bestetik, Hau-

ren danborrada eta Martiritza. Azken hau, askoz ere originalagoa, japoniar izaerako elementu musikal eta bisualak dituelako. Interpretatuko diren danborradaren konposizioak ere Miguel Gonzalez Bastidarenak dira.

400 bergarar taula gainean

San Martinen Estanpan 400 bergarar inguruk hartuko dute parte: 110 musikok, 150 abeslarik

eta 140 aktorek. Eszenatokiak Udal Pilotalekua- ren kantxa osoa hartuko du (500 metro karratu). Valen Moñux, eszena arduradunaren hitzetan, "instrumentu taldeei eta koruei lagako zaien lekuaz gain, bi eszenatoki nagusi izango dira. Bestalde, instrumentu taldeen gainean eszenatoki txiki bat jarriko da eta bertan Bergarako elkarte gastronomiko bat errepresentatuko da gaur egunean girotuta. Hain-

Ikuskizunerako sarrerak datorren astelehenean jarriko dira salgai 2.000 pezetan, eta numeratuak izango dira.

bat familia eta lagun agertuko dira San Martin bezperan egiten den afaria prestatzen. Elkartean sortzen diren elkarrizketak jaiaren ingurukoak izango dira eta pertsonaia zaharrenen oroitzapenak atzeragoko sa-soietako jai-eszenatoki-tara eramango gaituzte flash-back erara. Oroitzapen horiek eszenatoki nagusian errepresentatuko diren estanpak osatuko dituzte". Beraz, Bergaran ohikoak diren jai-ekitaldi eta ohituren laburpen bat izango da.

Herriko talde ugari

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak, Orfeoia, Aritzetak, Alai Taldeak, Umore Ona taldeak, Udal Txistulari Bandak, Xamatx dantza taldeak, Virago eta Oihulari Klown antzerki taldeek eta Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeak hartuko dute parte ikuskizunean. Guztiak afizionatuak dira, Mikel Laskurain aktorea izan ezik, baina honek ere musitruk lan egingo du. Bestalde, Eduardo Murua-mendiaraz dantzariak koreografia berezia prestatu du ikuskizunerako.

Ikuskizunean 400 berregar inguruk hartuko dute parte, baina muntaia aurrera ateratzeko lanean ibiliko direnak askoz ere gehiago dira.

Sarrerak numeratuak


Aipatu dugun moduan San Martinen Estanpa otsailaren 1ean, zapatua, 22:30etan estreinatuko da. Hurrengo egunean bigarren emanaldi bat egingo da, 19:30etan. Bestalde, urtarrilaren 31n, 20:00etan aurre-estreinaldia egingo da umeentzat.



Egun hauetan jo eta ke ari dira ikuskizunerako entsaiatzen.

Kasu honetan sarrerak doan banatuko dira herriko eskoletan. Beste bi egunetarako sarrerak, berriz, 2.000 pezetan jarriko dira salgai eta Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzitako 80 orrialdeko liburua doan banatuko da frontoira sartzerakoan. Sarrerak Frontoiko takilan salduko dira eta numeratuak izango dira. Datorren astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara eskuratu ahal izango dira. Ikuskizuna errepresentatzen den egunetan ere salgai izango dira, baina takilak ikuskizuna hasi baino ordu laurden lehenago itxiko dira.

San Martinen martirioren laugarren mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien aurrekontua 5 milioi t'erdi pezetakoa da: Udalak bi milioi t'erdi eman ditu eta gainontzekoa hainbat erakunde eta enpresa pribatuk. Jasotzen den dirua Musika Eskolan egin behar diren obrei aurre egiteko erabiliko da.



Legedia

Epaimahai popularra

- Noiztik dago indarrean epaimahai popularraren legea?

- 1995ean sartu zen indarrean eta oraindik berria dela esan daiteke. Herri anglosajoen tradizio juridikoan oinarrituta dago eta hemen oraindik erenahiko arraroa egiten zaigu. Legegileen artean ere nahiko eztabaida eman da. Azken batean, lege honen bitartez herritarrei justizia administrazioan parte hartzeko aukera ematen zaie, Konstituzioan jasotzen den moduan.

- Nolako eztabaidak izan dira?

- Eztabaidetako bat epaimahai garbia edo eskabinatua osatzea izan da. Epaimahai garbia herritarrez bakarrik osatuko litzateke eta eskabinatua, berriz, Zuzenbidean adituek jendeak (abokatu eta fiskalek) eta herritarrek hartuko lukete parte. Azkenean jurado garbia izatea erabaki zen.

- Epaimahaia nola aukeratu da?

- Erroldako datuekin zozketa egiten da bi urtero. Epaimahai popularrak

Entzutegi Probintzialetan (Donostian gure kasuan) erabiliko dira bakarrik: 36 pertsona aukeratu dira eta erreklamazio epea zabaldu ondoren, azkenean 9 lagun eta bi ordezkari hartzen dira. Erreklamazioen artean, besteak beste, 64 urtetik gorakoa izatea, atzerrian bizi izatea edo karga familiarak edukitzea aipa daitezke. Derrigorrezkoa da epaimahaiko kidea izatea



PEDRO GARCIAÑDIA
(Abokatua)

erreklamazioa ezeztatzen bada. Bestela isunak jasotzeko arriskua dago.

-Nolako kasuak epaituko dituzte herritarrek?

- Kode Penal berriko artikuluan jasotzen dira kasu guztiak, 12 delitu dira denera. Eskuineko alderdiak askatasun se-

xualaren kontrako delituek (bortxaketak etab.) ere epaitzea nahi zuen eta horrek sekulako polemika piztu zuen. Azkenean ez zen aurrera ateratu hori eta homizidioa da herritarrek epaituko duten delituetatik zigor haundiena daukana.

- Nolako berediktio eman beharko dute?

- Botazio sekretua egiteko aukera izango dute herritarrek eta horretarako eurendako prestatuturiko gela bat izango dute. Alde batetik ekintza frogatuak izan diren ala ez eta bestetik erruduna den ala ez erabaki beharko dute. Bi kasuetan gutxienez 7 boto behar dira ekintza frogatuak direla eta epaitua erruduna dela erabakitzeko. Inor ezin da botazioan abstenitu eta horrela bada isuna jarriko zaio eta bere botoa errugabe eta ekintza frogatu gabearen aldekoatzen joko da.

- Zein da zure balorazioa?

- Aldaketa haundiak ekarri ditu epaimahaiaren ezartzeak eta dagoeneko kontzientzia arazoak azaldu dira. Nire ustez hasieran behintzat legegile eta herritarrez osaturiko epaimahaia izan beharko litzateke. Bestalde, ez da herritarren babesarako neurririk hartu eta hortik ere arazoak etorri daitezke. Oraindik hutsune batzuk ikusten ditut.

“Lege honekin justizia administrazioan parte hartzeko aukera ematen zaie herritarrei”



Bergarako Epaitegian ez dira epaimahai popularrak erabiliko.

Deco-Textil
ZANGITU
Etixerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORATZA eta ONATIRA

Mizpirualden

Zaharren egoitzako erresidenteekin berriketan

Antzuola, Elgeta eta Bergarako 107 erresidente dira Mizpirualde Egoitzan. 1982ko ekainean 56 oherekin inauguratu zenetik, gorakada nabaria izan du Mizpirualdek. Gaur egun 223 milioi pezetako aurrekontua dauka eta bertara hurbildu gara erresidenteen bizimodu nolakoa den jakiteko. Orokorrean zaharrak pozik dira, nahiz eta batzuetan eguneko 24 orduak nola bete asmatzea zaila izaten den.



Antonio Diez, 96 urterekin, Erresidentziako zaharrena da baina gazte baten kemena azaltzen du.

Antonio Diezek 96 urte ditu eta Erresidentziako zaharrena da, nahiz eta gazte baten kemena azaldu. Antonio 1901ean jaio zen Torrecilla de la Abadesa herrian, Valladoliden, eta bi urte daramatza Erresidentzian. Emaztearekin etorri zen baina 1995eko martxoan hil zitzaion andrea. 12 seme-alaba izan zituzten eta gaur egun lau geratzen zaizkio. Hala ere, nahiago du Erresidentzian egotea seme-alabekin leku batetik bestera ibiltzea baino; "Zortzi urtean ibili ginen andrea eta biok seme-alabekin bizitzen baina nabiko nekagarria zen. Batekin Gasteizen, beste batekin Valladoliden, Bergaran..., bidaiatzeaz nekaita geunden eta hona etorri ginen. Maternidadea hemen zegoenean

akordatzan naiz eta hona etorri baino lehen ezagutzen nuen hemengo zenbait jende. Gustora nabil, gainera poztasuna ekarri dut nik hona. Ikaragarri gustatzen zait berba egitea eta ondo pasatzen dut hemengo jendearekin. Gainera, ez hiltzeko zaintzen naute hemen..., ezin naiz kexatu".

Antoniok bere seme-alaben eta biloben bisitak izaten ditu noizean behin; "ni ikustera etortzen dira eta karameloak ekartzen


dizkidate, primeran pasatzen dugu". Antoniok 45 urte eman zituen baserri batean lanean Valladoliden eta egunero 10 Km. egin behar izaten zituen oinez. "Herriarekin gutxitan akordatzan naiz, urte asko igaro dira eta...". Orain, 96 urterekin, osasun aldetik primeran dago eta sekulako oroimena duela erakusten du, gaztetan Aste Santuan abesten zituen kantua gogoratuz. "31 urte daramatzat jubilaririk eta nabiko deskantsatu

dut dagoeneko... 12 bat ordu lo egiten ditut egunero... eta bi aldiz jausi naiz ohetik! Ia egun guztia eserita igarotzen dut, segituan nekatzen naiz". Antonio kataratetik operatu zuten orain gutxi; "Hona etorri nintzenean ez nuen ikusten eta orain, berriz, primeran ikusten dut. Hala ere, desengainu batzuk hartu nituen; ederrak imajinatzen nituen neskak ni pentsatu baino zatarragoak ziren" esaten du mutiko bihurri baten aurpegia azalduz.

"Gustora nabil, ondo pasatzen dut hemengo jendearekin. Gainera poztasuna ekarri dut nik Erresidentziara" ANTONIO DIEZ

Torremolinostetik Erresidentziara

Eustaquia Egizabalek ere barre egiten du Antoniok esaten dituenarekin eta animatu egiten du 100 urtera heldu behar dela eta aurpegi oraindik gaztetasuna nabaritzen zaiola esanez. Antonio ez da 100 urtera iristearekin konformatzen eta 100 urtetik gora bizitzeko itxaropena daukala erantzuten dio, *"eta beti ere alai gainera"*. Eustaquia joan zen urritik dago Erresidentzian bere ahizparekin batera; *"Osasun arazoengatik Torremolinosen bizi ginen biak eta denbora gutxian gaisorik jarri ginen. Koinatak ekarri gintuen eta Arrasateko zentroan osatu ninduten. Irailaren 27an, nire urtebetetze egunean, alta jaso ondoren, etxean egun batzuk igaro eta hona etorri ginen. Ahizpa eta biok gela berean gaude eta ez daukagu inolako kexarik, primeran tratatzen gaituzte*



Torremolinosen 17 urtetan bizi ondoren, Eustaquia Egizabalek eta bere ahizpak logela konpartitzen dute.

hemen. Erizainak eta bertako monjak ere oso atseginak dira benetan. Ohetik altxatzeko laguntza behar dut eta taka-takarekin ibili behar izaten dut artrosiaren ondorioz. Ea laister bastoiarekin ibiltzeko aukera daukadan!!"

Eustaquia jostuna izan da ofizioz, 65 urterekin jubilatatu zen arte. Ezkongabea da eta 1949tik ez zen Bergaran bizi. Azken 17 urteak Torremolinosen eman dituzte eta noizean behin bisitan etortzen ziren Bergarara; *"Hemen oso pozik gaude, ez zai-*

gu ezer falta eta Gabonak ere bertan igaro ditugu. Txanpana ere dastatu nuen baina ez dakit oso ondo egin zidan..." Torremolinoseko tenperatura beroetara ohituta, Eustaquia ez da Erresidentziatik apenas irtetzen; *"Ez daukat kanpora irtetzen direnen inbidiarik. Hemen tenperatura bera dago egun osoan eta ez dut kanpora irteteko gogorik izaten. Hemen oso lasai bizi gara"*. Egunduan Eustaquia pozik dago; *"egindako errebisiotan medikuek berdin jarraitzeko esan didate eta horrek animoak eman dizkit"*.

Bizilagunen artean harremanak onak

Jose Mari Unamunok ez du oraindik Erresidentzian lehen urtea egin. Azken urteotan osasun aldetik zenbait arazo izan ditu: 1993an tronbosia jasau zuen eta iaz, berriz, diabetes atakea. Hainbat urtetan General Mecanic



Jose Mari Unamunok faltan botatzen du kalera gehiagotan irten ahal izatea.

lanean jardun ondoren jubilatu behar izan zuen. *"Joan zen ekainean ekarri ninduten eta hemen oso bizitza lasaia egiten dugu, aspergarria batzuetan baina tira.... Harreman ona daukat hemengo erresidenteekin eta hor ibiltzen gara, jokoan, telebista ikusten, eta beste bainbat kontutan".*

Jose Mari ere ezkongabea da, 67 urte dauzka gaur egun eta bera ere nahiko konforme dago Mizpirualden egiten duen bizimoduarekin. Duen pena bakarra gehiagotan kalera irteterik ez izatea da. *"Hanka ez daukat oso ondo eta makilaren beharra daukat. Hala ere, noizean behin Poli-*

gonoraino joaten naiz pasiuan eta 7ak aldera bueltan nago berriz. Asteazkenero ere Jubilatuetara joateko aukera dago, furgoneta batek eramaten gaitu eta horrela pasatzen dugu denbora. Hemen dena kontrolatuta, organizatuta dago. Goizean goiz jeiki, gosalduta, aktibitate batzuk iza-

ten dira egunean zehar eta goiz oheratu".

Jose Marik Unamunok Gabonak Donostian igaro zituen bere familiarekin. *"Orain hanka hobeto izateko itxaropena daukat udaberri aldera pasiua eman eta laguneekin kafe bat eta txikito bat edo beste bartu abal izateko..."*

Alazne Irazabal

Mizpirualdeko Gizarte Laguntzailea

Alazne Irazabalek zazpi urte daramatza Erresidentziako Gizarte Laguntzaile. Gregorio Iruretagoienaren zuzendaritzapean, 31 langile eta bost monja ari dira Mizpirualden lanean. Irazabalek azken urteotan erresidentearen tipologia aldatzen ari dela adierazi digu.

- Zein izan da Erresidentziaren ibilbidea azken urteotan?

- Orain dela lau urte betetzen hasi zen Erresidentzia eta erresidenteen tipologia ere aldatuz doala esango nuke. Orain senideak hona ekartzea azken aukera da familientzat; beraz elbarritu gehiago dago lehen baino. Elbarritu kopurua lehen baino askoz ere haundiagoa da eta horrek Erresidentzian aldaketak egitera behartzen gaitu; Egoitzaren zerbitzuak aldatuz doa eta pertsonala ere gehituz doa normala denez. Hala ere, esan behar da 65 urtetik gorako gehienak ondo daudela eta euren etxeetan bizi direla. Elbarrituena oso portzentaia txikia da zahar guztiak kontutan hartuz.

- Zein izan da erresidenteen kezkarik nagusia?

- Osasuna, ikaragarri arduratzen dira beren osasunarekin. Bestalde, egoitza batean 24 ordu luze egiten dira, nahiz eta ekintza asko izaten



dituzten. Dena eginda ematen zaie eta denbora betetzea batzuetan nahiko zaila izaten da. Bestalde, badira bakardade arazoa duten

erresidenteak ere, seniderik ez duten pertsonak gehienetan eta alde horretatik eskertzekoa da boluntarioek eskeintzen diguten laguntza.

- Zein da zuen erronka?

- Gure helburua bizitza kalitate ona eskeintzea litzateke eta ahal dugun neurrian saiatzen gara zentzu horretan hobetzen. Uste dut hobetuz goazela. Asmoa, konbidentzia aldetik, Erresidentzia euren etxea bezalako gune bat izatea da eta horretarako euren familiei eta herriari berari atek zabaltzen dizkiegu giro atsegina lortu ahal izateko. Mizpirualde herriaren zati bat izatea da gure

ametsa eta horretarako herriko talde kulturalak etabar ekartzen saiatzen gara ahal dugun guztietan, zaharrak herriko bizitzan integratu daitezten.


"Gure helburu nagusia bizitza kalitate ona eskeintzea litzateke eta zentzu horretan hobetuz goazela esango nuke"

Zer deritzozu txakurrak toki publikoetan aske ibiltzeari?



Luis Fernando Zeziaga

Oso gaizki, txakurrak aske edozein modutan ibiltzea gaizki ikusten dut. Jabeek ondo kontrolatu beharko lituzkete.



Fernando Salinero

Gaizki, zikinkeria mordo bat lagatzen dute eta. Txakurrak toki egoki batean izan behar dira eta kalean lotuta eramatea lojkoa ikusten dut.



Ruth Etxeberria

Ondo, nik txakurra daukat eta lotuta eramaten dut baina aske eramatea ez dut gaizki ikusten.




Beatriz Larreategi

Gaizki, beldurra ematen didate eta. Nik txakurra eduki izan dut baina txakurraren bat aske ikustea ez zait batere gustatzen.



Maria Luisa Rubio

Lotuta joango balira hobe. Ez dut gaizki ikusten aske eramatea baina nahiago dut txakurrak lotuta joatea.



Patxi Pineda

Niri berdin zait, txakurrak aske ibiltzea ez dut gaizki ikusten, ez naute molestatzen.

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SIRIMIRI

jatetxea

**PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.**

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

**M
E
R
K
E
A
L
D
I
A**

%20

Urtarrilean

KANELA

Espaloia, 10
Tlf., 76 01 83

**M
E
R
K
E
A
L
D
I
A**



Internet-en indarra

Orain dela hilabete batzuk Internetek komunikabideetan eta negozio munduan izango duen eraginari buruzko jardunaldi batzuetan izan nintzen. Hizlarietako batek, egunetik egunera hazten doan informazio zurrumbilo kontrolagaitz hau legez arautzeko sortzen diren oztopoei erantzuna eman nahian edo, "komunikabiderik demokratikoena" zela adierazi zuen. "Horretantxe datza hain zuzen Interneten edertasuna eta erregimen totalitarioenak baino ez dira saiatuko beraren hazkundera mugak jartzen" azpimarratu zuen.

Zenbaitek infobide honen sorrera inprentaren asmakuntzarekin parekatu izan dute. Konparazioak konparazio, argi dago XXI. mendean komunikabideen mundua goitik behera aldatuko duen baliabide baten aurrean gaudela. Era berean, ukazina da kume zibernetikoa oraindik bere lehenengo pausua ematen ari dela eta badituela gainditu beharreko hainbat erronka, besteak beste, irudiak irakurtzeko moteltasuna, nahi den informazioa aurkitzeko zailtasunak edota salerosketak telefono linearen bidez egiteak ekar ditzakeen arriskuak. Dena den, benetako iraultza heltzeke dago oraindio. Komunikabideen kableaketatik etor liteke berau, horri esker herri barruko deiak doan izango baitira eta informazioaren transmisio abiadura nahiz bilketarako ahalmena ikaragarri handituko baitira.

Baina Internet jada abian jarri da eta monje beneditarrek ere ezin izan diote tentazioari ihes egin. Dagoeneko ohiko elkartasun-mezuez gain, eurek egindako produktuen katalogoa ere atera dute gune informatiko berrira, ordenaren izena daraman fikore ezaguna ere bertan dela, nola ez!

Jose DIAZ



Angiozar hiltzorian

Zuogana, bergararrongana jo nahiko nuke, guk angiozartarrok dauzkagun kezka eta beharren berri emateko. Maila desberdineko beharrak daukagu, baina bada gure herriaren izana kinka larrian jartzen duen behar bat.

Urteak dira Angizarko herriak Bergarako Udalari etxebizitza batzuk egin daitezen, neurriak har ditzala eskatu ziola, eta oraindik ere hortan dihardugu. Bergarako udalak garbi utzi du, Angiozarren bizitza luzatzeko ez daukala inolako asmorik. Hobe da angiozartarrak Bergarara joatea, honela ez dagoelako Angiozarren inbertsiorik egin beharrik.

Angiozar maite dugunontzat oso garrantzitsua da Angiozarrek bizitza izaten jarraitzea, baina orokorrean auzo txikiak, ez al daukate izaten jarraitzeko eskubiderik?

Begarako Udalak daraman moduko politika zentralistek, berehala amaituko dute Angiozarrek moduan, errentagarritasunik eskaintzen ez duten auzoekin.

Herri batek izaten jarraitzeko, beharrezkoa da bertan "bizitza" egotea, eta biztanleek non bizi edukitzea. Angiozarren hau da falta dena. Angiozarko herriak inpotentzia besterik ez du sentitzen Bergarako Udalaren jarreraren aurrean.

Angiozarren onurarako hartzen diren gainerako kostatako neurriak alferrikakoak dira onura hauetaz baliatuko den biztanlerik ez dagoen bitartean.

Amaitzeko, Bergarako Udalari eta gainerako erakunde publiko denei eskatuko nieke, herrigintzan dihardutenean, Angiozar moduko auzoen aldeko apostu egin dezatela.

Ainhoa LARRAÑAGA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN


GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45



Asteburuetan
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR, 10 ELGETA Tlf., 76 82 73

■ **Jubilatuak danborradara**

Jubilatuen egoitzako kideek irteera egin zuten astelehen goizean **Donostiara**.

Guztira, 50 lagun abiatu ziren Donostiara **San Sebastian eguna** ospatzeko asmoz eta egun ederra igaro zuten elkarrekin. Eguerdiko haurren danborrada ikusi ondoren, bazkaria izan zuten Errenteriako egoitzan. Pentsatzen dugu bazkalostean Sarriegiren martxaren doinuak joko zituztela Errenteriako lagunekin batera... Rataplan!!




■ **Ikurriñaren urteurrena**

Igandean **20 urte** bete ziren Ikurriña legalizatu zenetik eta hori ospatzeko **Euskaldunon Egunkariak** orduko protagonistetako batzuk bildu zituen joan zen egunean Bergarako Udaletxean. **Jose Luis Elkoro** Bergarako alkate ohiarekin batera **Jose Luis Altuna** Arrasateko alkate izandakoa (eskuman, betaurrekoekin), **Iñaki Aristizabal** oiartzundarra (ezkerrean, bizarrarekin), **Ignacio Iruin** Hernaniko alkatea 1977an (ezkerrean, betaurrekoekin), Legazpiko alkatea zen **Prontxio Larrañaga** (atzean), **Imanol Murua** Zarauzko alkateorde ohia (eskuman) eta **Juan Ignacio Uria** Azkotiako alkate izan zena (Elkororen atzetik) izan ziren Udaletxean orain dela 20 urteko gorabeherak gogoratzeko asmoz. Orduan bezala Ikurriña berriz ere jaso zen Udaletxeko balkoian nahiz eta oraingoan orduko oihartzunik ez izan. Beste garai batzuk ziren...

Bolillo eta Gantxillo
ikastaroa

Hasiera, otsailaren 19an
 Asteazkenetan izango da, 15:00-17:00 eta 18:00-20:00.
Informazioa: Igarza mertzeria, D. Irala kalea, 5



SAN PAULOTAN GAZTEENTZAKO
 MENU BEREZIAK

San Juan auzoa-Elgetara bidean / 76 35 51



■ Moser-en bizikletak

Txirrinduzaleen gozamenerako, **Francesco Moser** italiarrak 1984an eta 94an Orduko Errekorraren saioetan erabilitako bizikletak ikusgai izango dira urtarrilaren 28ra arte Kultur Etxeko erakustokian. Honetaz gain, bertara hurbiltzen direnek herriko txirrindularitzaren historia argazkitan ezagutzeko aukera izango dute. Ziklismoan azken urteotan emandako aurrerakuntza teknikoak nabariak dira Moser-en bi bizikletetan. Horren lekuko, 1984an

Munduko Orduko Errekorra egin ondoren, hamar urte geroago, 42 urte zituela, berak jarritako marka hobetzeko erabili zuen bizikleta, atzeko errobera lentikularra eta aurrekoa erradioduna dituen aluminiozko bizikleta. Era berean, Kirol Zerbitzuak **Iñigo Igartua** eta **Lokatzaren** laguntzaz antolatutako erakusketan, herriko txirrindularitzari buruzko argazkiak eta 70eko hamarkadakoak (**Jesus Aranzabalen** garaikoak) aurki daitezke.

■ Lokatzako zozketa

Alaitz Jainaga gazteak irabazi du Lokatza Ziklismo Eskolak Gabonetan antolatutako zozketako **mendiko bizikleta**. Saritutako boletoa 2.521 zenbakia izan da eta astelehenean eman zioten Alaitzi irabazitako bizikleta berria.

Argazkian Alaitz, Pello Garitano Lokatzako ordezkaria, eta Jose Ramon bere aitaren ondoan ikus dezakezue. Orain eguraldi onari itxaron behar bizikleta estrainatu ahal izateko...



Zertan dihardute ba?



Amagoia Ezenarro

27 urteko erizain bergararrak lehen saria eskuratu zuen bere lankideekin batera Castelloneko Benicasim herrian izandako Erizaintza Intentsiboaren Estatu mailako lehiaketan. Amagoiak eta beste hiru lankidek *Factores desencadenantes de stress en pacientes ingresados en la UCI* izenburuko lana aurkeztu zuten. Amagoiak erizain ikaşketak burutu zituen Iruñean, zainketa berezien espezialitatea eginez, eta bertan ari da lanean. Lehiaketan irabazitako diru kopurua UCIRA bideratuko da.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
76 60 39

BERGARA
76 19 98

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Balbina Cuevas

Balbina Cuevas osintxuarra Odol Emaleen Elkarteko kiderik beteroenetakoa dugu. Hamabi urte eman ditu odol emaleetan hutsik egin gabe eta orain, 65 urte betetzean, pena handiz, odola emateari utzi behar izan dio.

- Zergatik odol emale?
- Beharrezkoa dela ikusten nuelako.
- Eta zer esango zenioke odol emale ez den bati?
- Odol beharra dutenen onerako izan daitekeela.
- Zein odol mota daukazu?
- O negatiboa.
- Zenbat odol eman duzu urte hauetan?
- Auskalo!!
- Nola errekuperatzen dira indarrak?
- Errez, aperitibo on batekin.
- Zure alabek jarraitu zaituzte?
- Bat odol emalea da eta bestea konbentzitzeko ahaleginetan nabil.
- Zein kausagatik emango zenuke odola?
- Gertuan dauzkagun arazoengatik: istripuak, operazioak...
- Organu emalea zara?
- Ez, erreparo piskat ematen dit horrek.



“Odol emale izatea beharrezkoa dela ustedut, besteengan irekitasuna eta adiskidetasuna apreziatzen ditut eta nire ametsa pakean bizitzea da, horren beharra daukagu eta”

- Zein da gehien kezkatzen zaituen arazoa?
- Droga eta minbizia.
- Sinestuna zara?
- Bai.
- Besteengan zer da gehien apreziatzen duzuna?
- Irekitasuna eta adiskidetasuna.
- Lagunekin zer egitea gustatzen zaizu?
- Bildu, kafetxo bat hartu, irteeraren bat egin...
- Pasiatzea?
- Baita. Mendia, txoriak... asko atsegin ditut.
- Osintxuko txokorik politena?
- Frontoia, etxe aurrean daukat gainera.
- Bergarara askotan etortzen zara?
- Bai.
- Gustoko filme bat?
- Lo que el viento se llevo.
- Eta artista bat?
- Concha Velasco.
- Idazle bat?
- Antonio Gala.
- Animaliarik baduzu etxean?
- Ez.
- Ondoen gertatzen duzun platera?
- Iloben arabera, txipiroiak.
- Eta zure postre favorittoa?
- Tarta izoztua.
- Loterian jokatzeko duzu?
- Bai.
- Amets bat?
- Pakean bizi izatea, horren beharra daukagu eta.



**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñaten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokairuan hartuko genuke Donostian. ☎ 79 08 92 (Maidier).

Pisua konpartituko nuke Bilbon. ☎ 76 43 36.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Pisua alokairuan Zubiaurreko 19. zenbakian, lehen pisuan. ☎ 76 13 85.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Arkaian, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Pisuak salgai Barrenkalean. ☎ 76 53 13.

Pisua salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Ume-kotxea eta aulkia salgai. ☎ 76 40 56.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Kerosenozko estufa salgai egoera eta prezio onean. ☎ 76 21 71 (Amaia).

Donostian (Egian) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 50 (Gurutze).

Donostian (Grosen) pisu bat osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 28 89.

Donostian pisua osatzeko bi lagun behar dira. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Bigarren eskuko botoiakordeoia erosiko nuke. ☎ 76 11 96.

Taberna-erretogia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 06 72.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. ☎ 79 78 26.

Siames katakumak salgai. ☎ 76 17 35.

Alemaniar artzain txakurrrak (emeak) saltzen ditut. ☎ 76 53 35/76 32 14.

Logela eta frigorifikoa salgai. ☎ 78 25 85.

LANA

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Frantses klaseak. ☎ 76 27 16 (Estephanie).

Zientzietan lizentziatuak, OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Euskara klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 15 76.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Zaharrak zaintzen ditut gauzez. ☎ 76 11 11.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 20 88.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 64 60.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 16 96 (Olga).


Klinika auxiliarrak batek gaitxoak edo helduak zainduko nituzke. ☎ 76 64 47.

Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko, Beta-tik 3etara. ☎ 76 04 25.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Kabia TABERNA-ERRETEGIA
Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pza. artean).
Okela eta arraina parilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiiloak.
Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. ELKORREZINAR



Rosario Zezeaga

Rosario Zezeagak jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu dituelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen elizaren izena eta auzokoek santuaren eguna noiz ospatzen duten galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **San Paulo (Ubera)** eta **urtarrilaren 25**ean zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Rosario Zezeagari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein urtetan hasi ziren lehenengo klaseak Bergarako UNEDen eta nor zen orduko zuzendaria?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	30	10	53	13
2. ERROTAGAIN	25	10	43	18
3. JAUJA OH ZEREZOS	21	11	40	31
4. BAR CANALEJAS	19	9	33	23
5. AZPEITXI JATETXEA	13	10	35	30
6. ORTZI	12	10	22	22
7. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	11	34	43
8. MONGATXURRA	11	10	29	31
9. OGIZUN	10	10	27	33
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	10	9	35	29
11. UFALA	8	10	30	38
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	7	11	19	49
13. PAGOMENDI	6	10	22	44

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	20	11	48	35
2. ETXAGI	20	11	47	36
3. ARTUSAMAK BERGATRANS	20	10	35	21
4. EZINLEIKE	19	10	34	36
5. UVE BIKOITZA JAM	19	10	29	33
6. SOROPOTROAK	14	10	26	17
7. HALTZARI	13	10	30	26
8. LA JUVE	11	10	26	26
9. AGIÑASPI	11	10	26	30
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	11	10	31	25
11. ERI	10	10	22	23
12. AUTOBEREZI	10	10	26	38
13. INDARGORRI	9	10	24	32

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	24	10	34	18
2. NEKROFILIKOS	21	9	32	19
3. PJS	20	10	29	18
4. JAKINA PATXARAN TEAM	20	10	31	24
5. MOSKIS	18	11	30	23
6. TXIPIRON	16	11	31	38
7. FAC	16	10	42	25
8. IGANDEKOAK	14	10	26	33
9. EH BITERRAK	13	12	40	40
10. NAHIKARI HOOLIGANS	11	9	19	27
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	7	10	18	37
12. MRW	4	9	17	38
13. GANBARA	4	10	19	44

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	30	11	76	15
2. ARBE KIROLAK	28	11	60	26
3. ETENGABE	25	12	39	17
4. OSINTXU	23	12	31	21
5. MATXAKATEGI	22	11	46	29
6. XURRUPAK	19	12	40	42
7. SLO	18	12	41	41
8. PANORAMIX	15	12	25	42
9. AMILOTX	13	12	26	43
10. PATA NEGRA	12	12	30	34
11. KOMANDO PIPERRAK	11	12	25	37
12. ALDOKA MALDOKA	8	12	27	42
13. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	11	17	57
14. PITTIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Oskar Navarro

AGIÑASPI

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Nahiko gaizki goaz eta partidu asko suerte txarragatik galdu ditugu.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, taldea osatzeko jokalaririk ditugula igandero. Txarrena, asko ezin direla jokatzera etorri.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, arbitroari protestatzeagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATZALDEZ?

Arratsaldez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa.

JOKALARIK ONENA?

Nire taldeko Paco Moreno.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Ez dut gogoratzen nori, baina 14 gol sartu genizkion.

ETA JASOTAKOAZ?

10 eta 1 La Juve.

ZE POSTUTAN ESPERO DUZUE AMAITZEA?

Erdialdean.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Raul.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Jordi Arcarons.

EUSKAL HERRIKOAZ?

Marino Lejarreta.

JATEKO PLATER BAT?

Arroz zuria.

EMAITZAK

BILDURBAREK OPEL/LAM-PAGOMENDI	1-7
JAUJA OH ZEREZOS-A ZE FLAXA ETXAGI	2-6
ORTZI-BAR CANALEJAS	2-1
UFALA-AZPEITXI JATETXEA	3-5
UVE BIKOITZA JAM-AUTOBEREZI	3-2
EZINLEIKE-AGIÑASPI	4-4
HALTZARI-AGIRREBEÑA JATETXEA	3-3
ARTUSAMAK-ERI	5-1
ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS	4-4
GANBARA-EH BITERRAK	2-6
NEKROFILIKOS-MOSKIS	1-0
IGANDEKOAK-PATXARAN TEAM	4-5
AMILOTX-MANITOU	0-6
ALDOKA MALDOKA-XURRUPAK	1-2
PATA NEGRA-ETENGABE	2-4
OSINTXU-PANORAMIX	5-2
POLIDEPORTIVO TABERNA-SLO	1-7
MATXAKATEGI-KOMANDO PIPERRAK	7-3

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-SLO • MONGATXURRA
10:00: UFALA-MONGATXURRA • MANITOU
11:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-MANITOU • UFALA
19:00: HALTZARI-AUTOBEREZI • ARBE KIROLAK
20:00: OSINTXU-ARBE KIROLAK • HALTZARI

Zapatuan kanpoan

09:00: ETXAGI-AGIÑASPI • KAYAK OS JARDINEIROS
10:00: EZINLEIKE-KAYAK OS JARDINEIROS • ETXAGI
11:00: NEKROFILIKOS-MRW • EZINLEIKE

Domekan barruan

09:00: A ZE FLAXA ETXAGI-AZPEITXI JATETXEA • ORTZI
10:00: ORTZI-ARLOTEAK/OILAGORRA • MADURA
11:00: MADURA-PAGOMENDI • ERROTAGAIN
12:00: ERROTAGAIN-BAR CANALEJAS • BILDURBAREK
13:00: OGIZUN-BILDURBAREK OPEL/LAM • BAR CANALEJAS
16:00: SOROPOTROAK-EZINLEIKE • UVE BIKOITZA JAM
17:00: INDARGORRI-UVE BIKOITZA JAM • ETXAGI
18:00: ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS • ARTUSAMAK
19:00: ARTUSAMAK-AGIRREBEÑA JATETXEA • XURRUPAK
20:00: XURRUPAK-ETENGABE • AGIRREBEÑA JATETXEA

Domekan kanpoan

09:00: TXIPIRON-GUADALEST • ERI
10:00: ERI-LA JUVE • GANBARA
11:00: GANBARA-CONSTRUCCIONES BERGARA • FAC
12:00: FAC-EH BITERRAK • PJS
13:00: MOSKIS-PJS • EH BITERRAK
16:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-PANORAMIX • KOMANDO P
17:00: PATA NEGRA-KOMANDO PIPERRAK • ALDOKA
18:00: ALDOKA MALDOKA-MANITOU • PATA NEGRA

OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK MOSKIS ETA ARLOTEAK/OILAGORRA TALDEEI 3 PUNTU KENDU DIZKIE ARAUAK EZ EZAGUTZEAGATIK. BESTALDE, ROBERTO ELKOROBARRUTIARI 3 PARTIDUTAKO ZIGORRA EZARRI DIO ARBITROA IRAINTZEAGATIK. HALABER, ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS PARTIDUA BERRIZ JOKATZEKO ERABAKIA HARTU DU.

TXINPARTAK

Eneritz Muguruzak lau domina

Eneritz Muguruzak urrezko domina bat eta zilarrezko 3 lortu zituen joan zen zapatuan Bergaran jokatuako Gipuzkoako Infantilen Neguko igerilari txapelketan. Era berean, Eli Alberdi, Eider Baltzategi, Amaia Lazpiur eta Muguruzak osatutako erreleboak zilarrezko domina lortu zuen 4 x 200m krol proban.

Preferente mailako liderra Agorrosinen

BKEko Preferente mailako taldeak EHU liderraren aurka jokatu du igandean arratsaldeko 4etan. Joan zen astean nahiko ondo jokatu arren 3 eta 0 galdu zuten Mutrikuren aurka.

Saskibaloitalde nagusia lider Eskoriatzari irabazi ondoren

BKEko senior saskibaloitaldeak 76 eta 67 irabazi zion Eskoriatzari joan zen zapatuan Labegarrietan jokatuako partiduan. Bergararrak 28 eta 4 aurreratu ziren eta Eskoriatzakoa bezain altuak ez izan arren, taktikoki eta teknikoki hobeak dirrela erakutsi zuten. Gainera, epaileak erabaki eztabaidatu baten ondoren taldeko jokalaririk altuena, Aniotz Gabilondo, kanporatu zuen Eskoriatzako beste jokalaria batekin batera.

Partiduaren azkenaldera kanpotarrak markagailuan hurreratu ziren hiruko jaurtiketei esker, baina bergararrek jokoa kontrolatuz garaipen garrantzitsua lortu zuten. Izan ere, Ramon Condek entrenatzen dituen mutilak 14 partiduko jokatu ondoren ez dute oraindik partidurik galdu eta Eskoriatzakoak 2. postuan daude bakarrik BKEn aurkako bi partiduko galduta. Liga bukatzeko



Entrenatzaileak eta jokariak lan bikaina egiten ari dira aurtan.

oraindik 12 partiduko galditzen zaizkio senior taldeari eta horrela jarraitzen badu Liga Autonomikora igoko luke.

Halere, oraindik asko falta da eta hor daude BKEkoen hutsen zain Eskoriatza, Lezo eta Ordiziako taldeak. BKEko saskibaloitaldekoak pozik daude jokariak egiten ari diren lanarekin, baina lehenengo postuan amaitzen badute, igotze-

ko aukerak aztertu behar dituzte guztien artean. *"Duela urte batzuk Liga Autonomikoan aritu ginen eta denboraldi ona egin arren erreta bukatu genuen oso eta talde seniorra desagertu egin zen. Orain taldean oso giro ona daukagu eta igotzekotan dirulaguntza gehiago eta egitura indartzea ezinbestekoa da"* esan digute elkarteko ki-deek.

Oregik Asegarce laga du

Aitor Oregik ez du aurtengo denboraldian Asegarcerekin jarraituko. Izan ere, joan zen urtarrilaren 15ean bukatu zitzaion kontratua eta enpresak berau ez luzatzea erabaki du. Oregi nahiko triste dago, baina konforme egindako lanarekin. *"Urtean zehar gora beherak izan ditut. Jarraitzeko itxaropena nuen, baina enpresak pelotari kuadroa berriztea erabaki du eta niri alde egitea tokatu zait"* adierazi digu. Orain enpresa berri baten bila dabil eta, esan digunez, Besagaineekin harremanetan dabil. Enpresa horretan, besteak beste, bere anaia, Joseba, Astarloa eta Koka pelotariak daude.



Aurrerantzean Besagaineekin jokatu du.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-EHU**

Preferente maila.
Domeka. 16:00. Agorrosin.

◆ **Bergara-Elgoibar**

1. mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Soraluze**

2. mailako kadeteak.
Domeka. 10:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Beti Ona**

Ohorezko mailako jubenilak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Gazteak**

2. erregional maila.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ **Iraundi Bergara-Deusto**

Senior mutilak.
Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Hernani**

Kadete neskak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

ESKOLA KIROLA

◆ **PWÁ-Institutua 2**

Neskak.
Eguakitza. 17:00.
Migel Altuna Institutua.

◆ **Walter-Los Txispis**

Mutilak.
Zapatua. 11:00.

◆ **Migel Altuna Institutua.**

◆ **Institutua-Migel Altuna**

Mutilak.
Zapatua. 11:00.

◆ **Migel Altuna Institutua.**

◆ **MP-Mariaren Lagundia**

Mutilak.
Zapatua. 12:00.

◆ **Migel Altuna Institutua.**

◆ **LTB-Blue Star**

Neskak.
Zapatua. 12:00.

◆ **Migel Altuna Institutua.**

Iker Azagirre

Deba arroko pilota txapelduna

Iker Azagirrek 12 urte ditu eta dagoeneko badaki zer den txapela janztea. Izan ere, eskolarteko Deba arroko txapelduna da eta beste hainbat torneotan irabaztea lortu du pelotari gazteak.

- Noiz hasi zinen pelotan jokatzen?

- 5 edo 6 urte nituenean hasi nintzen. Aita pelotaria izandakoa da eta berarekin hasi nintzen jokatzen. 8 urterekin BKEko pelota eskolan hasi nintzen eta orain Mugu-ruza eta Iker Muruamendi-razekin entrenatzen naiz.

- Zela gustatzen zaizu jokatzea?

- Lehenengo tantua dominatu eta ondoren ezker gantxoarekin, dejada txokoan edo bi partekin gustatzen zait bukatzea. Batez ere, aurreko jokoa gustatzen zait.

- Titinen moduan pelota guztietara sartzen zara?

- Ez, nire jokoa Alustizarenaren antzerakoa da.

- Zer esaten dizute hobetu behar duzula?

- Boleaz gehiago sartu behar naizela esaten didate. Bestela bi eskuekin antzera ibiltzen naiz.

- Ze torneo da irabaztea gehien gustatuko litzazukeena?

- Eibarrekoa. Duela gutxi bikoteka jokatu dugu eta Soraluzekoekin kontra galdu egin dugu. Bana-ka berdin zait ze torneo irabazi, baina Soraluzekoekin irabaztea asko gustatuko litzaidake.

- Asteazken zehar zenbat entrenatzen duzu?

- Astearte eta ostegunetan bi orduz entrenatzen dugu eta asteazken edo ostiraletan aitarekin Elorregiko frontoira joaten naiz.

- Beste kirolik egiten duzu?

- Futbolekin jokatzen dut. Ezkerreko hegaletik aurrean jokatzen dut. Orain BKEko infantiletan sartzeko proba batzuk egin ditut eta ea hartzen nauten.

- Zein da gustokoen duzun pilotaria?

- Lehen Retegi gustatzen zitzaidan, baina

orain erreflejo falta dauka. Gaur egun Titin da gehien gustatzen zaidana. Berak eramaten du publiko gehien frontoira.

- Eta atzean zein nabarmenduko zenuke?

- Beloki eta Elkor. Arretxe ez zait gehiegi gustatzen beti pelota jote-
ra joaten delako eta azkarregi nekutzen da.

- Partidua ikusteko nondik, frontoitik ala telebistatik?

- Telebistatik hobeto ikusten da. Frontoian atzeko errebotera joan behar zara ondo ikusteko, baina halere ez da oso ongi apreziatzen.



"Boleaz gehiago sartu behar naizela esaten didate".

**“Nire jokatze-
ko modua
Alustizarenaren
antzerakoa da”**



Argazkia: Lokatza

Lokatza txirrindulariak. 1978.

Dakizuen moduan, Iñigo Igartua txirrindulariak eta Lokatza ziklismo eskolak erakusketan prestatu dute egun hauetan Kultur Etxean. Bertan, Francesco Moserrek Orduko Munduko Errekorra hausteko erabilitako bizikleta, hainbat bergarar txirrindulariren argazkiak (Aranzabal, Igartua, Iturbe, Arietaleanizbeaskoa...), eta Lokatza ibilitako hainbat txirrindulariren argazkiak ikus daitezke.

Aste honetan txoko honetara ekarri dugun erretratu Kultur Etxean ikusgai daudenetako bat da. 1978. urtean Lokatza txirrindulariak mailan ibili ziren txirrindulariak agertzen dira, 13 urte inguruko mutil koskorak, bizikleta gainean gora eta behera ibiltzen zirenak. Gaur egun 31-32 urte dituzte. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak ezkerretik hasita.

Martin Alberdi, Karlos Igarza, ezezaguna, Andoni Olabarria, Enrike Elkoroberezibar, Karlos Gallastegi eta Igor Garitano.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21


zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko
aseguruaren
abantaila buruzko
zehaztapen guztiak
emango dizkizugu.
**Zatoz eta
galdetu!!**



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80

Euskaldunak
izan nahi
dugulako
EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!!

EUSKARA IKASTAROAK
Maila guztiak, EGA eta
ALFABETATZE
Gurasoentzat klase bereziak

Matrikula epea:
URTARRILAREN 31a arte

Informazioa eta matrikula:
AKULU-AEK EUSKALTEGIA
Masterreka, 13 behe
Tfnoa: 76 05 18



æk

ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena **ETXEMOBEL**en. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!